

Donostia, 2016ko azaroaren 18a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA MENDIOLA BIDEA EGOKITZEKO LANAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuen bezala, Mendiola baserriaren eta Zarra fuertearen arteko bide-zatian egokitze lanak egin dira, suhiltzaileen kamioiak igaro ahal izateko eta haien balditzak hobetzeko, basoan sutea baldin bada. Era berean, hodi bat jarri da bidearen ertzetako batean, urez hornitzeko suterik denean, eta bidearen amaieran, maniobretarako gune bat egokitu da, ibilgailuek buelta ematerik izateko.

Batzordean azaldu genuen enpresa esleipendunak baimenik gabeko isurketak egin zituela ondoko lurzati batean. Zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen espedientea ireki zutela isuritakoa kentzeko

Zoritxarrez, ez da aldi bakarra legez kontrako isurketak, edo gutxienez eztabaidagarriak, egiten diren. Belartza IIIn, albiste izan dira han egindako isurketaren inguruko irregulartasun ugariak. Atotxa Errekan, inguruko bizilagun batek salatu du urbanizatze lanen lurrak ondoko lurzati batera bota dituztela. Mendiola bideko legez kontrako isurketa jarri dugu orain mahai gainean. Argi dago, antza, lanak egiten dituzten enpresek tentazioa dutela, arrazoi ekonomikoengatik noski, lurra ondoko lursailetan botatzeko, hondakindegira eraman ordez, obligazioa izanda ere.

Iruditzen zaigu zaintza zorrotzagoa egin behar dutela alderdi horiek kontrolatzeko ardura duten udal zerbitzuek.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

### KONTROL MOZIOA



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**irabazi**  
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio lanak hartu aurretik egiazta dezala bete diren lanen lizitazioko baldintza orrietan ezarritako betekizun guztiak, lurren edo sortutako hondakinen norakoari buruzkoak barne.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.